



### 3. MODULUA

# GATAZKEN PREBENTZIOA ETA ELKARBIZITZARAKO GAKOAK

TUTOREA:  
OLATZ MANUEL EZENARRO

### 3. MODULUA: Gatazken prebentzioa eta elkarbizitzarako gakoak

---

#### *Ardatza; Prebentzioa eta elkarbizitzarako gakoak*

- Gelako giro positiboa
- Ikaskuntza kooperatiboa
- Kontratu didaktikoak eta elkarbizitzarako bideak
- Adimen emozionalaren gaitasunak garatu

#### JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntza-esparruan, ikasgelako giroak eragin zuzena du ikaskuntza prozesuan eta gazteen garapenean. Gatazkak, funtsean, konexio beharren hausturaren eta arazo estrukturalen ondorio dira. Modulu honen helburua ez da gatazkak ezabatzea, baizik eta prebentzio mekanismoak ezartzea eta gazteak konponbide gaitasunez ahalduentzea. Modulu honen markoa hiru ardatz nagusitan egituratzen da:

1. Prebentzioa eta Konexioa: Gelako Giro Positiboa sortuz, ikasleek segurtasuna eta errespetua sentitu dezaten. Horretarako, Ikaskuntza Kooperatiboa erabili daiteke harreman positiboak sendotzeko.
2. Konponbidea eta Erantzukizuna: Gatazkak sortzean, Kontratu Didaktikoak bezalako tresnak erabiltzearen garrantzia azpimarratuko da. Horrela, inposaketa saihestu eta gazteek beren jokabidearen konponbide kolaboratiboa diseinatzen dute
3. Oinarri Pertsonala: Adimen Emozionala garatzea ezinbestekoa da. Gazteei beren emozioak eta atzean dauden beharrak identifikatzen eta modu eraikitzailean adierazten irakatsi behar zaie, gatazkak sormenez eta enpatiaz kudeatzeko.

Laburbilduz, modulu honek elkarriketa, erantzukizuna eta konexio emozionala lehenesten ditu gatazken kudeaketan.

### **3.1 Gelako giro positiboa**

Gelako giro positiboa ez da soilik diziiplina arazorik eza; ikasleek segurtasuna, errespetua eta konfiantza sentitzen duten ingurune hezitzailea da, non ikaskuntza prozesua errazten den. Giro hori sustatzeko, oinarritzko hiru dimentsio hartu behar dira kontuan (Pascual, 2011).

#### **3.1.1. Gelako giroaren dimentsioak**

Gelako giro positiboa ikasleek eta irakasleek gelan izaten duten elkarekintzaren ondorioz sortzen den izaera iraunkorreko atmosfera gisa definitzen da. Atmosfera horrek ikaskuntza prozesuan eta gatazken kudeaketan zuzenean eragiten du. Pascualek (2011) hiru dimentsio nagusi bereizten ditu gelako giroan:

- Giro afektiboa eta soziala: Harremanen kalitateari egiten dio erreferentzia (segurtasuna, konfiantza, errespetua).
- Giro antolatzailea: Arau, errutina eta baliabideen kudeaketari dagokiona.
- Giro motibazionala: Ikasleak ikas prozesuan parte hartzera eta ahalegina egitera bultzatzen duena.

Giro positiboa eraikitzea ezinbestekoa da, horrek gertuko harremanak eraikitzea, jokabide egokiak garatzea eta pentsamendu kritikoa sustatzea ahalbidetzen baitu (Pérez & Asensi, 2021). Giro positiborik ematen ez bada, ikasleen garapen pertsonala eta soziala mugatu daiteke.

#### **3.1.2 Irakaslearen eragina eta lidergo proaktiboa**

Gelako giro positiboa sortzeko, irakasleak rol aktiboa dauka eredu gisa jokatzeko, bere interbentzioetan lidergo proaktiboa erabiliz.

- Lidergoaren garrantzia: Irakasleak duen lidergoak zuzenean eragiten du giroan. Irakasleak itxaropen errealistak (baina handiak) izan behar ditu ikasle guztientzat, haien gaitasunak baloratuz eta ikasleen segurtasuna eta konfiantza sustatuz (Pascual, 2011).
- Faktore Estrukturalak: Pérez eta Asensoren (2021) lanak azpimarratzen du diziiplina arazoak ikaslearengan baino gehiago, faktore estruktural eta antolatzaileetan (adibidez, parte-hartzeko bideen falta edo arau multzo argi baten falta) dutela jatorria. Beraz, irakaslearen zeregina giro hori egituratzea da.

- Eredugarritasuna: Irakaslearen jokabidea (emozioen kudeaketa, komunikazioa, zintzotasuna) funtsezkoa da ikasleentzat eredu gisa. Irakasleak gatazken aurrean hartzen duen jarrera lasai eta eraikitzaileak giro lasaiagoa sustatzen du.

### **3.1.3 Konponbide kolaboratiboak eta komunikazioa**

Giro positiboa ezartzeko, arauak kudeatzeko eta gatazkak ebazteko estrategiek dialogoa eta elkarren arteko erantzukizuna bultzatu behar dituzte.

- Arauen Kudeaketa: Arauen kudeaketak ezin du inposaketan oinarritu. Pascualek (2011) iradokitzen du arauen tratamendua dialogoarekin eta modu baketsuan egitea, eta arau haustek konpontzeko bitartekaritza erabiltzea. Horrek konponbide kolaboratiboetarako bidea irekitzen du (aurrerago aztertuko da gai hau).
- Konpromisoa eta erantzukizuna: Pérez eta Asensoren (2021) ikuspegiak azpimarratzen du irakaslearen helburua dela irakaslearen esku-hartze tresnak ikasleen esku uztea, "aprender a convivir" (elkarbizitzen ikasi) eta "aprender a ser" (izaten ikasi) bezalako oinarritzko zutabeak garatzeko. Horrek esan nahi du konponbideak hezitzaileak inposatu beharrean, gazteekin batera sortu behar direla.
- Segurtasuna eta konfiantza: Bitartekaritza eta arazoen ebazpen kolaboratiboa etengabe lantzen diren giro batean, ikasleek harremanak eraiki, jokabideak garatu eta segurtasun sentzazioa areagotzen dute (Pérez eta Asensi, 2021).

## **3.2 Ikaskuntza kooperatiboa**

Elkarbizitzarako bidean eta gatazken prebentzioan, ikaskuntza kooperatiboak paper garrantzitsua jokatzen du. Gaur egungo gizartean, une oro aurkitu dezakegu lehiara bideratutako uneak. Hori horrela, Ikaskuntza kooperatiboa garrantzitsua izan daiteke best bide batzuk posible direla azaleratzeko. Ikaskuntza kooperatiboa, ikasleen arteko interakzioan eta elkarrekiko mendekotasun positiboan oinarritzen da, ikasleek talde txikietan elkarrekin lan egitean, taldekide guztiek ikas helburuak lortzea bilatuz (Johnson eta Johnson, 1999). Horrela, ikasleen ikaskuntza indibiduala nahiz taldearena maximizatzen da. Mendekotasun positiboa, ikaskuntza kooperatiboaren funtsezko osagaia da. Ikasleek ikasteko eta helburua lortzeko elkarren beharra dutela sentitzen dutenean gertatzen da. Horrek erantzukizun indibiduala eta konpromiso pertsonala bultzatzen ditu, taldekide bakoitzak ezinbesteko rola baitu taldearen arrakastan (Ortuondo, 2021).

### **3.2.1 Ekarpina gelako giro positiboan**

Ikaskuntza kooperatiboak zuzenean eragiten du gelako giroan, errespetua, laguntza eta gatazken kudeaketarako trebetasunak sustatzen dituelako. Ikasleen arteko harreman sozioafektiboak hobetzen ditu, harreman positiboak sustatuz eta ikasleen arteko onarpena areagotuz. Ikasleek elkarri lagundu eta elkarrekin ikasten dutenean, giro afektibo eta soziala hobetzen da (Pascual, 2011).

Kooperazio egoerek ikasleei gatazkak modu eraikitzailean kudeatzen irakasten diete. Taldean lan egiteak desadostasunak sorrarazten ditu modu naturalean, eta horrek ikasleek komunikazio trebetasunak (entzute aktiboa, adibidez) eta negoziazio estrategiak praktikatzera behartzen ditu. Horrela, ikaskuntza kooperatiboak laguntzen du gatazkak ikaskuntza aukeratzat hartzen (Ortuondo, 2021).

Ikaskuntza kooperatiboak, motibazio intrintsekoa areagotzen du, ikasleek beren buruarekiko erantzukizuna eta konpromisoa hartzen dutenean. Horrek ikasle guztien parte-hartzea eta integrazioa sustatzen du, ikasle ahulenak ere laguntza eta parte-hartze beharra dutela sentituz.

### **3.1.3 Ikaskuntza kooperatiboaren osagaiak**

Johnson eta Johnson anaiek (1999) IK ereduaren ezarpen arrakastatsuak bost oinarritzko osagai behar dituela:

1. Mendekotasun positiboa: Taldekide guztiek elkarren beharra dute helburua lortzeko.
2. Erantzukizun indibiduala: Taldekide bakoitza bere ikaskuntzaren eta bere ekarpenaren erantzule da.
3. Elkarrekiko elkarrekin eraikitzailea: Taldekideek elkarri lagundu, azalpenak eman eta motibatzen diote.
4. Trebetasun sozio afektiboak: Taldean modu eraginkorrean lan egiteko trebetasunak (adibidez, entzute aktiboa, gatazken kudeaketa) esplizituki irakatsi behar dira,
5. Talde Prozesuaren Ebaluazioa: Taldeak aldian-aldian ebaluatu behar du nola funtzionatu duen eta nola hobetu dezaketen etorkizunean

Bost osagai horiek betetzen direnean, IKk gelako giro positiboa ezartzen laguntzen du, eta ikasleek elkarrekin bizitzen eta sortzen ikasteko beharrezko trebetasunak garatzen dituzte.

### 3.3. Kontratu didaktikoak eta elkarbizitzarako bideak

Kontratu Didaktikoa ikasle baten eta irakaslearen artean borondatez eta formalki adostutako tresna da, jokabide jakin baten hobekuntza edo helburu akademiko- sozial zehatz baten lorpenerako konpromisoa ezartzen duena (Nelsen, 2006). Kontratu didaktikoaren erabilera ez da zigor sistema bat, garapen pertsonala sustatzeko marko bat baizik. Nelsenek (2006) diziplina positiboaren ereduan kokatzen du kontratua. Kontratuak helburu du ikasleak aldi berean adeitasun (errespetua eta konexioa) eta sendotasun (mugak eta erantzukizuna) giro batean ikastea. Horrela, kontratuak irakaskuntza tresna gisa funtzionatzen du, eta ez zigor gisa.

Kontratu didaktikoak Thomas Gordonen (2003) printzipioekin lerrokatuta daude. Gordonen ustez, hezitzaileak ikaslearen independentziarako eta erantzukizunerako sena elikatu behar du. Kontratuaren bidez, ikaslea bere jokabidearen eta akordioaren emaitzaren erantzule nagusia bihurtzen da, inposaketa kanpotik etorri beharrean, barne konpromiso bihurtuz.

Hori horrela, kontratu didaktiko eraginkor bat ezin da inposatu. Elementu nagusiak honako hauek izatea gomendatzen da

- Adostua izan behar da: Partehartzaile guztien artean bideratu beharko litzateke.
- Jokabide zehatza: Helburuak modu positiboan eta neurgarrian adierazita (*Zer egin* behar den, eta ez zer ez egin).
- Onura positiboak ere jaso: Konpromisoa betetzearen truke ikasleak jasoko dituen ondorio positiboak. Ebaluazioa eta Berrikuspena: Akordioak denboran mugatua izan behar du, eta berrikusteko data bat ezarri behar da.
- Jarraipena eta akatsak ikaskuntza gisa ulertu behar da

Kontratuaren arrakasta ez datza betetze perfektuan, baizik eta jarraipen eta feedback eraginkorrean. Nelsenek (2006) azpimarratzen du akatsak ikasteko aukerak direla. Kontratua ez betetzea gertatzen bada, ez da zigorra inposatu behar, baizik eta ikasleak egoera hori nola erreparatu eta nola hobetu dezakeen aztertu behar da (konponbide kolaboratiboak). Irakaslearen feedback-a KEBren printzipioetan oinarritu behar da: behaketa (zertan bete den edo ez), sentimendua (irakaslearen lasaitasuna edo kezka) eta beharra (erantzukizunaren edo konfiantzaren premia) adieraziz.

### 3.4 Adimen emozionalaren gaitasunak garatu

Daniel Goleman izan zen Adimen emozionalaren kontzeptua ezagutarazi zuena, adimen kognitiboa baino gehiago, bizitzako arrakastan eta harremanen kalitatean garrantzi handiagoa duela argudiatuz (Goleman, 1995). Adimen emozionala, norbere eta besteen emozioak ezagutu, ulertu eta modu egokian kudeatzeko gaitasuna da. Golemanek (1995) bost gaitasun eremu nagusi bereizi zituen, gatazken kudeaketarekin zuzenean lotuta daudenak:

1. Norberaren Ezagutza: Norbere emozioak identifikatzea eta ulertzea.
2. Norberaren emozioen erregulazioa: Emozioak eta bulkadak modu eraikitzailean kudeatzeko gaitasuna.
3. Norberaren motibazioa: Helburuak lortzera bideratzea.
4. Enpatia: Besteen sentimenduak, beharrak eta ikuspegiak ulertzeko gaitasuna.
5. Gaitasun Sozialak: Harremanak kudeatzeko eta taldean eraginkortasunez lan egiteko gaitasuna.

Rafael Bisquerra da Adimen Emozionala eskola testuinguruan txertatzearen defendatzaile nagusietakoa. Bere lana hezkuntza emozionalean zentratzen da, adimen emozionala eskola curriculumean sartzeko prozesu sistematiko gisa. Bere esanetan, hezkuntza adimen emozionala, emozioen kontzientzia eta erregulazio gaitasunak garatzea, pertsonen garapen integrala ahalbidetzeko da (Bisquerra, 2003)

Bisquerrak (2003) bost bloke handitan egituratzen dituzte gaitasun emozionalak, Golemanen eremuan oinarrituta baina hezkuntzara aplikatuta:

1. Kontzientzia Emozionala: Emozioak identifikatu eta adierazteko gaitasuna.
2. Emozio Erregulazioa: Emozio ezberdinak modu eraginkorrean kudeatzea.
3. Autonomia Emozionala: Autoestimua, eraginkortasuna eta jarrera proaktiboa sustatzea.
4. Gaitasun sozialak: Harremanak eta gatazkak modu positiboan ebaztea.
5. Bizitzarako eta ongizaterako gaitasunak: Bizitza osasuntsu eta orekatua sustatzea.

Garrantzitsua da hortaz, edozein gertaeraren aurrean gazteek adimen emozionalaren konpetentziak garatzea eta horretarako espazioak ahalbideratzea.

---

## Erreferentzia Bibliografikoak

Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias para la vida. *Revista de Investigación Educativa*, 21(1), 7–43.

Goleman, D. (1995). *Emotional intelligence: Why it can matter more than IQ*. Bantam Books.

Johnson, D. W., & Johnson, R. T. (1999). *Learning together and alone: Cooperative, competitive, and individualistic learning* (5. ed.). Allyn & Bacon.

Nelsen, J. (2006). *Positive discipline: The classic guide to helping children develop self-discipline, responsibility, cooperation, and problem-solving skills* (Rev. 3rd ed.). Ballantine Books.

Ortuondo Bárcena, J. (2021). *Aprendizaje Cooperativo en Educación Física: Efectos de una intervención con futuros docentes de Educación Física* [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco]. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Pascual, C. (2011). *La creación de un clima positivo en el aula de educación física: una visión general*. Oposinet.

Pérez, C., & Asensi, C. (2021). *Cómo crear un clima de aula positivo. Actividades y técnicas de intervención*. Desclee